

Bideoaren erreferentzia: Bagoaz A1B15

Maila: A1

Helburua: Klaserako hamaiketako edo meriendarako zerbait prestatzea. Norberak zer prestatzen dakien eta janariak zer daukaten esan.

Funtzioa: Gauzak eskatzea, gustuak adieraztea.

Azken ekintza: Merienda edo hamaiketako bat egitea gelan.

Adierazpide linguistikoak:

- Aditza: dauka-daukate / gustatuko zai(zki)zu
- Harridurazko esaldiak: Harrituta nago / auskalo / Eskerrak / Seguru / Mundialak
- Lexikoa:
 - Janaria: arrain-zopa, kroketak, urdaiazpikoa,
 - Eta zer daukate? / hasteko, arrain-zopa eta kroketak

1. ENTZUN AURRETIK

Hasiera honetan, helburua da elkarri kontatzea zer janari dakiten prestatzen (zeregin honek lotura dauka gero bukaeran egin beharko duten ekintza komunikatiboarekin?<. Horretan laguntzeko, 3 egoera eskaintzen zaizkie; bertan, gaiarekin lotutako hiztegia, galdetzeko eta erantzuteko formulak daukate: *Ez dakizu prestatzen? / Badakizu sushia prestatzen?*

Oharra: *-tzen nominalizazioa*, berez, A2 mailakoa da; hemen espresio egina bezala erabiltzen dugu (chung).

Eredu edo egoera horrekin ariketa egin ondoren, talde txikitik berrikeran jardungo dute zer dakiten prestatzen esateko. Ondoren, denen aurrean azaldu dezatela taldean azaldutakoa.

Erantzunak: a-3; b-1; c-2

2- ENTZUN BITARTEAN

Atal honetan, audioko mezua ondo ulertu duten erreparatuko diogu. Zuk baloratu zenbat aldiz ikusi behar duten bideoa, eta zein estrategia erabili esatea ere ondo etorriko zaie ikasleei. Galderak ulermen orokorretik espezifikorainoko tartea hartzen dute.

Erantzunak: 1-b; 2-b; 3-c

3. IKUSI ONDOREN

Atal hau ekintza komunikatiboa gauzatzeari begira dago prestatuta. 1. ariketan, janarien osagaiei buruz galdetzeko formula ageri da (*Zer dauka/Zer daukate?*); 2.ean, janariei buruzko komentario edo balorazioak markatu behar dituzte elkarriketan.

Erantzunak: 3.1.1 Zer daukate? - Zer dauka?

3.1.2: Onak egongo dira. Zureak auskalo. Amak kroketa mundialak prestatzen ditu; bexamel zoragarria egiten du. Asko gustatuko zaizkizu. Niretzat onenak dira. Um, usain ederra dauka.

3.2 Hemen ekin behar diote azken ataza burutzeari. Gelan ospatu behar duten hamabitako edo meriendarako zer prestatu erabaki behar dute talde txikitik. Ikasle bakoitzak zer dakien prestatzen esan eta erabaki beharko dute zer plater prestatu. Plater horien gaineko komentario edo balorazioak

ere egiteko eskatu diegu, aurreko jardueran bideokoek egin duten bezala. Ikasleei eskema edo txuleta eskaintzen zaie bere jarduna bideratzeko.

TRANSKRIPZIOA

OIER.— Gabon!

AMAIA.— Gabon, Josu, zertan ari zara?

JOSU.— Ikusten duzu, sukaldean, zuentzat afaria prestatzen.

AMAIA.— Harrituta nago! Ondo moldatzen zara sukaldean?

JOSU.— Artista bat naiz!

AMAIA.— Zuk ez daukazu amonarik, ezta?

OIER.— Ez, baina ama bikaina bai! Bueno, banoa, skype saio bat daukat orain.

JOSU.— Eman goraintziak!

AMAIA.— Gero arte.

JOSU.— Gero arte.

AMAIA.— Zergatik esan du hori?

JOSU.— Auskalo! Adarra jotzeko-edo.

AMAIA.— Eta? Zer ari zara prestatzen?

JOSU.— Hasteko, arrain-zopa, eta kroketak.

AMAIA.— Hori dena egiten dakizu?

JOSU.— Bai, gure familiaren aspaldiko sekretua da. Badakizu, amonaren sekretua.

AMAIA.— Baldarra ematen duzu, baina ez, ez: asko balio duzu!

JOSU.— Amaia, minduta nago. Hainbeste duda eta hainbeste zalantza. Sukaldea nire erresuma da!

AMAIA.— Josu, zer da hau?

JOSU.— E, bueno, oso... oso txukuna naiz eta ontzi zikinak bere lekuan uzten ditut.

AMAIA.— Bai, gezurteroa !

JOSU.— Ez, Amaia...!

AMAIA.— Badakit, amak egin ditu kroketak eta zopa, eta zuk tupperretan ekarri dituzu.

JOSU.— Eta zuei afaria jarri. Ideia bikaina, e?

AMAIA.— Bueno, eskerrak! Hauek onak egongo dira, seguru. Zureak, berriz, auskalo!

JOSU.— Ikusiko duzu, ama kroketak mundialak prestatzen ditu; bexamel zoragarria egiten du. Asko gustatuko zaizkizu.

AMAIA.— Eta zer daukate?: urdaiazpikoa ala bakailaoa?

JOSU.— Urdaiazpikoa.

AMAIA.— Niretzat onenak dira.

JOSU.— Eta arrain-zopa! Gehiago eskatuko didazu. Amonaren sekretua da.

AMAIA.— Zer dauka?

JOSU.— Ba ez dakit.

AMAIA.— Ea... Um, usain ederra dauka. Bueno, nahi baduzu, mahaia jarri, e?